

## Euskara donostiarron ahotan

Soziolinguistikako Euskal Institutuak euskararen erabileraren inguruan ikerketa egin berri du. Lekuan lekuko datuak oso ezberdinak dira, eta beraz, balorazioak ere horien arabekoak dira. Donostian datuek erabilerak gora egin duela adierazten dute.

Aitziber Iartzza

SEI elkarteak egindako IV. Euskararen Kale Erabileraren Neurketaren datuak plazaratu berri dira. Euskal Herri osoko datuak kontuan hartuta, erabilerak apur bat gora egin duela ikus daiteke baina, ondorio nagusia goranzko erritmoa moteldu dela da. Euskararen erabileraren goranzko joera erabat mantsotu da, eta zenbait lekutan behera ere egin du. Hala, Araban %4 izatetik %3 izatera

igaro da. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, berriz, bere horretan mantendu da, ez gora ez behera. Erabilerak soilik Bizkaian eta Gipuzkoan egin du gora.


Donostiari dagokionez, baikor egoteko moduko zenbait datu badira, baina guztia ez da baikortasuna. SEIk erabilerari buruzko ikerketa lau urtean behin egin ohi du. 1997an egindako ikerketa kontuan hartuta, erabilerak %14tik %15,8ra igaro da. 1989ko ikerketarekin alderatuta, be-

rriz, lau puntu pasatxo egin du gora euskararen erabilerak.

Donostian datu esanguratsuena gazteen artean izandako gorakada da. 1989an %7,9 zen erabilerak eta gaur egun, berriz, %17. Adin tarte honetan, gainera, neskek mutilek baino dezente gehiago erabiltzen dute euskara. Datu ezkorra, berriz, adinekoek eman dute, erabilerak ia puntu bat behera egin baitu azken lau urteotan.

Nabarmentzekoa da, halaber, haurrak tartean direnean euskararen erabilerak zenbateraino egiten duen gora. Gipuzkoan %100 igotzen da erabilerak eta Donostian, berriz, %200.

Oro har, Donostiako datuak bilakaera ona erakusten dute, baina ezagutzak gora egiteak erabileraren maila bereko gorakada ez dakarrela nabarmentzen da han eta hemen.



### Entzunez eginiko ikerketa

Soziolinguistika Euskal Institutuak ikerketa hau egitekoan ez dizkio jendeari galderak egin, soilik kalean entzundakoaren arabera egin du lana. Hau da, kalean entzundako elkarrizketetan euskararen presentzia zenbatekoa den aztertu du, zuzen zuzenean. Donostian ikerketa egiteko 17.686 pertsonen elkarrizketak entzun ditu SEIk.

## Giokela, Okel Garbia Muturretik Buztanera



**MAIALEN HARATEGIA**  
Karmelo Etxegarai, 10  
ANTIGUO Auzoa

**SUPER MATIA-HEZURRAK**  
Juan de Garai, 5  
ANTIGUO Auzoa


**HUEGUN HARATEGIA**  
Bretxako Merkatua, 10  
BRETXA

**JESUS EUGI HARATEGIA**  
Bretxako Merkatua, 6  
BRETXA




## Donostiako datuak adinaren arabera


### Haurrak




### Gazteak



### Helduak



### Adinekoak



### Ramon Etxezarreta

Euskara zinetegia



“Datuetan ez dut gehiegi sinesten. Nik beste era batera neurtuko nuke, alegia, euskarak zein arlotan duen eragina, zeintzutan ez, eta abar. Zenbakiak interpretatzea zaila da oso. Esaterako, gazteen artean bikoitza baino gehiago hasi da euskararen erabilera. Hori horrela balitz, aldaketa soziala suposatuko luke, eta nik ez dakit hori benetan hala ote den. Faktore biologikoak ere eragina du. Datu horien gainean irakurketa baikorra eta ez korra ere egin daiteke. Ez dakit erabili duten metodologia zein den, eta horrek balorazioa baldintzatzen du”

### Txillardeggi

Idazlea



“Neurketak erakusten du euskaldunen artean konpaktazioa ematen dela. Hori ez balego, erabilera %7 ingurukoa litzateke, baina %15eko da. Euskaldun multzoak jarrera positiboa duela ikusten da. Hala ere, bide horretatik, eta tentsio handia sortuz, erabilera, gehienez ere, %30era iritsi daiteke. Ezaguera mailak mugatzen du erabilera, eta erdaldun etebakarrak gutxitzen ez badira, ez dago gora egiterik. Ezagutza maila aréa gotzeko eskolaren eragina ikaragarria da. Baina, aldi berean, euskarak praktikan beharrezkoa izan behar du, sozialki balioa izan behar du jendeak ikas dezan. Hazkundera geldotzea oso larria da, egungo kopuruetan goja jotzen badu, euskararenak egin baitu”

### Olatz Altuna


SEIren ikerketaren arduraduna



“Donostiako datuei buruzko balorazio orokorra ona da. Hazkundera joerari eutsi dio eta hori ona da. Hala ere, azken lau urteetan hazkunderaren eritmoa moteldu egin da. Azken lau urteetan puntu bateko igoera baino ez du izan. Bestetik, beraunaldi gazteetan erabilerak gora egin duela nabarmendu behar da, hori normalizazioari begira ona baita. Donostian, oro har, Gipuzkoako joera mantendu da”



Arriberrí, 7 ALZA (Donostia) Kasaren Kultur Etxearen Alza. Poliki deitzen ondoren eto autobus bazatoz, hobe! Autobus linea 13, H6, 24 eta 17.



Kolon Pasealekua, 27 (Gros) DONOSTIA